





- Hirugarren bisitan, **pasaporte**a, poliziaren ziurtagiria **eta NANaren kopia eraman zituen, eta orduan ere ez zioten dokumentazioa hartu, ez zuelako aurkeztu jatorrizko NANA**.
  - Zailtasun handiak zituenez, kexagileak **erreferentziako gizarte-langilearengana jo zuen**, eta hark iradoki zion berriz ere hitzordua har zezala Lanbiden. Azken bisitan, une hartan zuen **dokumentu guztiak aurkeztu ahal izan zituen**.
2. Hala ere, aurkeztutako dokumentazioa aintzat hartuta, Lanbidek prestazio horiek jasotzeko eskubidearen **etenaldiari eutsi zion 2016ko azaroaren 22an**, arrazoi hau zela-eta:

*-“No presentar en el plazo estipulado la documentación que se le había requerido.”*

Kexagileak adierazi zuen ez zetorrela bat etenaldi horrekin; horretarako, **aukerako berraztertze**ko errekurtsua aurkeztu zuen Lanbiden, **zegokion epean eta moduan**. Lanbidek, **2017ko martxoaren 27ko** ebazpenaren bidez, **errekurtsua ezetsi zion** interesdunari.

Ebazpen horren hirugarren atalean, Lanbidek xehetasunez aipatu zuen zer bisita egin zituen kexagileak Lanbideren bulegoetara (zer dokumentazio aurkeztu zuen eta noiz) erakunde publikoak dokumentazio-errekerimendua egin ondoren, baina ez zuen zehaztu zer zailtasuni edo informazio kontraesankorri egin behar izan zien aurre:

*-“ la recurrente solicitó cita dentro del plazo estipulado, dándole la cita para el día 30/09/2016, sin embargo ese día no aportó ningún documento. Volvió a solicitar otra cita ya fuera de plazo, el día 04/10/2016. Podría considerarse la posible validez de esta cita si hubiera sido solicitada el mismo día que acudió a Lanbide, es decir, el 30/09/2016 y, por algún motivo, en la documentación presentada se le solicita que debe ser subsanada, pero ni consta documentación aportada ese día ni la recurrente pidió ese mismo día una nueva cita, sino 4 días más tarde, a sabiendas de que se había pasado el plazo.*

*En cualquier caso, el 14/10 acudió a la oficina y presentó la declaración jurada de ingresos (aunque debía estar firmado por su madre y no por ella), documentación laboral de la recurrente y no de su madre, certificado del SEPE (sobre pensiones contributivas) y documento bancario con movimientos de la cuenta del recurrente, y no de su madre. No aportó nada del resto de documentación”.*

Izan ere, Lanbidek bisita horiek aipatu zituen bakar-bakarrik errekurtsua ezesteko ebazpena babesteko, arrazoi hau oinarri hartuta:

*--“El artículo 12.1. i) del Decreto 147/2010 que establece la obligación de comparecer ante la Administración y colaborar con la misma cuando sea requerida*





*para ello, obligación que la recurrente ha incumplido al no aportar toda la documentación solicitada dentro del plazo establecido para ello.*

*-"El art. 43.2. del citado decreto establece como causa de suspensión el incumplimiento temporal por parte de la persona titular ó de algún miembro de su unidad de convivencia de las obligaciones asumidas al acceder en la prestación, en particular las reseñadas en el artículo 12 del presente Decreto."*

Interesdunak **kexa bat** aurkeztu zuen **Arartekoan 2017ko apirilaren 5ean**, eta bere kasuaren inguruabarrak zehaztu zituen. Azpimarratu zuen ahaleginak egin zituela Lanbidek egindako jakinarazpen guztiei erantzuteko, zailtasunak izan zituela, ez ziotela behar bezalako **informazio** eman Lanbideren bulegoan, bertaratu zen guztietan, eta bizikidetzaren unitatea zaurgarritasun handiko egoeran zegoela. Kexagileak adierazi zuen **bere egoera larriagotu egin zela** Donostiako Udalak **ukatu** egin zizkiolako gizarte-behar larrietarako laguntzak jasotzeko eskaerak —horiek puntualki eskatu zituen, prestazioak etenda zituen bitartean oinarrizko premiak asetzeko—. Horrez gain, jakinarazi zuen une horretan bizi ziren pisuaren jabeak **utzarazpeneko** demanda judiziala jarri ziela errenta ez ordaintzeagatik.

3. Arartekoak kexa izapidetzeko onartu zuen, eta, ondoren, **lankidetzaren eskatu zion Lanbideri**, adierazitako egitateei lotuta. Horrez gain, aurretiko gogoeta batzuk helarazi zizkion, eta erreplikakorrek ez izatearren, gero aipatuko ditugu.

Lankidetzaren eskaerari erantzunez, **Lanbideko zuzendari nagusiak txosten labur bat igorri zuen**, eta, horren bidez, jakinarazi zigun kexagileari **prestazioak iraungi zizkiola** eta debekatu ziola horiek urtebetez eskatzea:

*"2016ko abenduaren 17an emandako eta 2016ko abenduaren 27an jakinarazitako ebazpenaren bidez, azkendutzat jo zen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea, eta, horrenbestez haien ordainketa eten zen, honako arrazoi hauengatik:*

- *Prestazio bi aldiz eten zaiolako haren bi urteko indarraldian, eskakizunak/betebeharrak ez betetzearen ondorioz.*
- *DSBEa iraungitzen den une berean iraungitzen delako EPOa jasotzeko eskubidea, haren osagarri baita."*

Azkenik, Lanbidek honako hau jakinarazi zion erakunde honi bere txostenean:

*- "Ebazpen horren bidez jakinarazten da ezingo direla diru-laguntzak berriro eskatu, eskubidea azkendu den unetik urtebete igaro arte: 2016/12/01 (maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 50.2 artikulua)."*

**2018ko apirilaren 24an, beste informazio-eskaera bat egin genion Lanbideri.** Alde batetik, lehenengo etendia (lehenengo txostenean aipatutakoa) zerk eragin zuen



esateko eskatu genion, eta, bestetik, galdetu genion, prozeduran zehar, uneren batean prestazioak kautelaz eten zitzaizkion pertsona horri.

Hura jaso ondoren, Lanbidek **beste lankidetzatxosten bat** bidali zion erakunde honi, 2018ko maiatzaren 28an. Horren bidez, hau jakinarazi zigun: *"(2016/03/19an ebatzi eta 2016/03/31n jakinarazi zen lehen zigorra (2015/REV/078817), 2016ko martxoko soldatan eragin ekonomikoa duena, honen eraginezkoa da: titularra, ezkontidea edo harekin antzeko harreman duen pertsona enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta ez egotea, inskribatzerik salbuetsita egon gabe."*

Halaber, adierazi zeniguten ez **zenutela bidezkotzat jo prestazioak kautelaz etetea**.

Horrenbestez, uste dugunez baditugula beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbideko oinarriak, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

### Gogoetak

Ebazpen honen helburua da aztertzea kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eteteko eta iraungitzeko Lanbideren erabakia zuzenbidearekin bat datorren.

1. Lanbidek prestazioak jasotzeko eskubidea eten zion herritar horri, arrazoi hau zela-eta:

*-“No presentar en el plazo estipulado la documentación que se le había requerido.”*

Zehatzago esanda, lehenengo etenaldiaren aurka kexagileak aurkeztutako aukerako berraztertze errekurtsoa ezestean, Lanbidek arrazoi hau eman zuen:

*--“El artículo 12.1. i) del Decreto 147/2010 que establece la obligación de comparecer ante la Administración y colaborar con la misma cuando sea requerida para ello, obligación que la recurrente ha incumplido al no aportar toda la documentación solicitada dentro del plazo establecido para ello.”*

*-El art. 43.2. del citado Decreto establece como causa de suspensión el incumplimiento temporal por parte de la persona titular ó de algún miembro de su unidad de convivencia de las obligaciones asumidas al acceder en la prestación, en particular las reseñadas en el artículo 12 del presente Decreto.”*

Erakunde publikoaren iritziz, Lanbideren dokumentazio-errekerimendua jaso ondoren kexagileak dokumentazioa aurkezteko lau saiakera egin izanak, eta, azkenean, eskatutako dokumentazioaren zati bat aurkeztu izanak epez kanpo, hau zekarren: maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren (Diru Sarrerak Bermatzeko





Errentari buruzkoa) 12.1.i) artikuluan —diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularren betebeharrak arautzen ditu— jasotako betebeharra ez betetzea.

Hala ere, frogatu da pertsona hori lau aldiz joan zela Lanbideren bulegora. Hala dio Lanbideren 2017ko martxoaren 27ko ebazpenaren —kexagilearen errekurtsioa ezetsi zuena— hirugarren atalak.

Erakunde honen ustez, kexagileak adierazitakoari nahiz Lanbidek berraztertzeo errekurtsioa ezesteko ebazpenean egindako gogoetei erreparatuta, **egiaztatu da**, prestazioa egin aurreko dokumentazio-errekerimenduak egin zirenean, **herritar hori une oro egon dela administrazioarekin lankidetzan aritzeko prest**. Halaber, egiaztatu da prozesuan **zailtasunak izan zituela** erakunde publikoaren eskutik **informazio egokia** jasotzeko eta demandari zegokion epean eta moduan erantzuteko.

Arartekoaren iritziz, ez da egokia kexagileari prestazioak eten zizkion ebazpena arrazoitzean argudio hau erabiltzea: *“No presentar en el plazo estipulado la documentación que se le había requerido”*. **Izan ere, kexagilea hainbatetan agertu zen, eta eskura zuen dokumentazioa aurkeztu zuen**. Lanbidek behin eta berriro eskatu zion NANA aurkezteko, nahiz eta hark egiaztatu ez zuela agiri hori, galdu egin zuelako, eta haren ordez pasaporteak aurkeztu bazuen ere —dokumentu publiko, pertsonal, indibidual eta besterenezina da hori, Estatuko Administrazio Orokorraren organo eskudunek igorritakoa, eta Espainiako herritarren nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzen ditu, Espainiatik kanpo, kontrako probarik ezean, eta Espainian, berriz, horixe bera egiaztatzeo baliatzen dute Espainian bizi ez diren herritarrek—. Pasaporteak, NANA bezala, Barne Arazoetako Ministerioak igorritako dokumentu pertsonal eta besterenezina da. Horien arteko aldea da pasaportearen egitekoa dela interesduna beste estatu batzuetan identifikatzea. Hori guztia gorabehera, egokia da Espainian NANaren ordez pasaporteak erabiltzea, hala nola sufragio unibertsal bidezko hauteskundeetan parte hartzeko, alegia, oinarrizko eskubide bat gauzatzeko (Espainiako Konstituzioaren 23. art.). Kexagileak egiaztatu zuen NANA galdu zuela, eta berria igortzeko izapideak burutzen ari zela.

Beraz, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.1.i) artikuluan agindutako lege-aurreikuspena bete zuen; hala, ez du lege oinarririk —artikulu horretan ez baitago jasota— eta aginduaren interpretazio zabala egitea dakar —kexagilearen eskubideetarako kaltegarria—; aldiz, proportzionaltasun-printzipioa haustea dakar (Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 56.2. artikulua), etetearekin hasiera batean nahiz bereziki larriagotu dena ondoren bi prestazioak iraungitzearekin eta urtebetez berriz eskatu ezinarekin.

Arartekoaren aburuz, kasu honetan ez dago hedapenezko edo “analogiazko” interpretaziorik, izaera murriztailea duen agindu baten analogiazko interpretazioa (abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.3. artikulua, esate baterako) ezin baita onartu.





Egiaz, Lanbidek kexagilearen jokabidearen ezaugarriak finkatzeak, diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular gisa dituen betebeharrak ez betetzearen ondorioz, prestazioak eta haien ordainketa etetea ekarri du –maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 49. artikuluan arautua–, prestazioa indarrean zegoen bi urteetan betebeharrak ez betetzeagatik bi etete zeudela-eta.

**Erabaki hori, Arartekoaren ustez, bereziki larria da kexagilearen inguruabar zehatzetan. Gizarte bazterkeria eta ahultasun handiko egoera duen bizikidetzak-unitate baten kide da, eta hura adin nahiz belaunaldi ezberdinetako 4 emakumek osatzen dute, hau da, Lanbidek 2017an egindako diagnostikoetako batean nabarmendu zuen moduan, pobrezia gehien kaltetutako profil aipagarrienetako batek, hain zuzen. Eragin handiagoa izanik, gainera, seme-alaba adingabeak ardurapean dituzten guraso bakarrek etxeetan; haietan, adingabearen interes gorena kontuan hartu beharreko zeharkako printzipio gisa agertzen da.**

2. Bestalde, edozein prozeduraren hasieratik eta une oro Lanbidek herritarrei eman beharreko informazioari dagokionez: Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen diagnostiko-txostenean zehatz-mehatz aztertu genuen moduan: *“Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak jasotzeko eta horiei eusteko, betekizun eta betebeharrak jakin batzuk bete behar dira. Arartekoaren ustez, garrantzitsuak dira bai informazioaren edukia, bai informazioa eskatzen dutenei ematen zaien tratua. **Gabeziak** hauteman dira pertsonen ematen zaien **informazioan**, bete behar dituzten betekizunei eta betebeharrei dagokienez,...*

*Batzuetan, informazioak ez du bat egiten aurreikuspen arautzaileekin, edo, bestela, ez da informazio osoa eta nahikoa ematen (...). Ezinbestekoa da prestazioetarako eskubideari eusteko egin behar diren jardueren buruzko informazio egokia ematea.”*

Asmo hori, halaber, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak indartzen du; haren bidez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen da, eta haren III. tituluaren (eskubideak eta betebeharrak) 54. artikuluan (*Jokabide-printzipioak*) azpimarratzen da:

*“1. Arretaz eta begirunez tratatuko dituzte herritarrak, beren nagusiak eta gainerako enplegatu publikoak ere.*

*(...)*

*4. Ezagutzeko eskubidea duten gaiei eta arloei buruzko informazioa emango diete herritarrei, eta laguntza emango diete beren eskubideak baliatu eta betebeharrak bete ditzaten”.*

Arartekoaren ustez, Lanbidek aurreko inguruabarrak behar bezala aztertu beharko zituzkeen, eta are gehiago bigarren etete bat erabakitzearen ondorioz, bizikidetzak-unitate batek (adineko pertsonen eta interes gorenen irizpena eskatzen zuen neskak adingabe batek ere osatutakoa) ezin duenean prestazioa jaso.





Beraz, uste dugunez baditugula beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbideko oinarriak, honako gomendio hau egiten diogu Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari:

### **GOMENDIOA**

Arartekoak gomendatzen du Lanbidek ebazpena berriz azter dezala; ebazpen horren bidez, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria etetea eta ondoren iraungitzea erabaki du, kexagileak bete baitu Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 147//2010 Dekretuaren maiatzaren 25eko 12.1.i) artikulua betebeharra.

